



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2019.11.19

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Nerea Letamendia Beloso

Begoña Tolosa Mendia

Patxi Amantegi Zubiria

Xabier Balerdi Tolosa

Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi azaroaren hemeretzi, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2019ko azaroaren 12ko bilkurako akta onartzea.
2. Onartzea bertan behera uztea Tolosako udalaren jarduera sozio-kulturaletan laguntza emateko zerbitzua kontratatzeko lizitazioa.
3. Onartzea hitzarmena, Urkizun depositu bat eraikitzeko Itelazpiko antenako urak biltzeko, Artegietako gainean abeltzaintza sustatzeko.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko azaroaren 12an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA BERTAN BEHERA UZTEA TOLOSAKO UDALAREN JARDUERA SOZIO-KULTURALETAN LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA.

AURREKARIAK

Lehena.- 2019ko abuztuaren 9an, 2019/1338 Alkatetza Dekretu bitartez, erabaki zen zerbitzu-kontratua esleitzeko lizitazio publikoa martxan jartzea, eta zegokion iragarkia Kontratatzailearen Profilean publikatu zen.



TOLOSAKO
UDALA

Hauek ziren lizitazioaren oinarritzko datuak:

- CPV: 92100000-2 eta 92130000-1
- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZa barne): 317.042,99 euro.
- Balio zenbatetsia: 524.038,00 € euro.
- Epea: iraupena bi urtekoa izango da eta beste bi urtez, urtez urte, luzatzeko aukera aurreikusten da.
- Prozedura: irekia.
- Behin betiko bermea: lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 5.
- Proposamenak aurkezteko epea: 36 egun natural.
- Proposamenak aurkezteko azken eguna: 2019ko irailaren 16a.

Bigarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, 2019ko abuztuaren 30ean, Molatu Produzioak, S.L. enpresak plegu administratiboan aurka errekurso berezia jarri zuen Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan (KEAO).

Hirugarrena.- 2019ko irailaren 4an, KEAOk emandako B-BN 38/2019 ebazpenaren ondorioz, esleipen prozesua eten egin zen, nahiz eta bitartean lizitazaitzaileen eskaintzak jasotzen jarraitu zen.

Laugarrena.- 2019ko azaroaren 12an, KEAOk 189/2019 ebazpena eman zuen, Molatu Produzioak, S.L. enpresaren errekurtsua partzialki onartuz eta lizitazioa bertan behera uzteko ebatziz.

APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoa.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2019ko azaroaren 15ean Kontratazio Mahaiak proposatutakoari jarraituz, onartzea bertan behera uztea Tolosako Udalaren jardura sozio-kulturaletan laguntza emateko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa, eta lehenbailehen lizitazio berri bat martxan jartzea.

BIGARRENA.- Kontratazaitzaileen profileen iragartzea bertan behera utzi izanaren berri.

HIRUGARRENA.- Interesatuei jakinaraztea eta eskaintzak aurkeztu dituzten enpresa guztiei aurkeztutako gutun-azalak ireki gabe bueltatzea.



TOLOSAKO
UDALA

LAUGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea Ogasun eta Finantza Administrazioiko Sailari, Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondare Azpisailari eta Kultura, Festak eta Gazteria Sailari.

Horretaz gain, batzarkideek ondoko hau adostu dute:

- Udala publikoki azaltzea jaso dituen kritiken aurrean erantzun bat emanaz.
- Tolosako Udalaren babesa adieraztea Molatu S.L. enpresako ordezkariak publikoki eraso dion udal langileari.

3 ONARTZEA HITZARMENA, URKIZUN DEPOSITU BAT ERAIKITZEKO ITELAZPIKO ANTENAKO URAK BILTZEKO, ARTEGIETAKO GAINEAN ABELTZAINZA SUSTATZEKO .

AURREKARIAK

Artegieta eta Olamuinoko magaletan, Urkizu auzoan, hainbat abelburu larrean ibiltzen dira. Itelazpik kudeatzen duen Artegietakoko antenara iristeko eraiki den bide hormigonatuak erraztu egin du larre horien erabilera eta larre oparoak sortu dira, azpiegitura horren inguruan.

Larre horretan ibiltzen diren abelburuak gaur egun 5 baserri ezberdinetakoak dira, Urkizu Azpi, Urkizu Gain, Gurutze, Olateaga Goikoa eta Eguzkitza. Bertan eta bost baserrien artean, 50/60en bat buru handi eta beste horrenbeste txiki (txahalak) ibili ohi dira. Guztira, handi eta txiki, 100 buru.

Nolanahi ere, eremu horrek duen arazo nagusia ur falta da. Hori dela eta, abelburuak lur horietaz gain, Urkizuko kaskoaren inguruan ere ibiltzen dira, bertako larretan edo ukiluetan, pentsua janez. Goiko larreetako ur falta dela eta, abeltzainek beren traktoreekin 1.000 litroko ur deposituak igo behar izaten dituzte, larreak erabili ahal izateko. Hori dela eta, aspaldiko eskaera da Artegietakoko antenako sabaian biltzen diren urak bildu ahal izateko depositu bat egitea.

2018ko azaroaren 23an aurrekontu bat eskatu zitzaion Juanjo Lopez Azurmendi nekazaritza ingeniari eta arkitekto teknikoari, Artegietakoko gainean, bertako larreen hobekuntzarako egin nahi den ur deposituaren exekuzio proiektua egiteko.

2019/02/28an, proiektuari sarrera erregistroa (Zk.:2100) eman zitzaion telematikoki.

2019/04/02an, alkatearen 2019/553 Dekretuaren bidez, ontzat eman zen proiektua. Proiektuaren aurrekontua, BEZik gabe, 41.940,84 eurokoa da. BEZarekin, berriz, 50.748,42 euro.



TOLOSAKO
UDALA

2019/04/12an, Tolomendik proiektua laguntzeko ebazpena eman zuen eta 23.171,50 euroko dirulaguntza onartu zuen

Proiektua gauzatzeko hitzarmen bat sinatzea beharrezkoa da. Hitzarmen honen helburua bikoitza da.

- 1.- Hitzarmen honetan zehazten dira Itelazpik, ura erabiliko duten abeltzainek eta Udalak hartzen dituen konpromisoak. Horretaz gain, uraren aprobetxamendua arautuko duten arauak ere finkatzen dira.
- 2.- Bestalde, hitzarmenean jasotzen da, era berean, obrak hartuko duen lur eremua Udalarri laga beharko zaiola 30 urteko epean. Obra hasi aurretik, beraz, lur lagapen hau egin beharko da, hitzarmena sinatuz.

TXOSTENA

Sektore publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legea oinarritzat hartuz egin da hitzarmena.

Hiru aldeak hauexek dira:

- OLATZ PEON ORMAZABAL andrea, Tolosako Udaleko alkate-lehendakaria denez, ekintza hau gauzatzeko ahalmena duena.
- MATXALEN LAUZIRIKA andrea, ITELAZPIko zuzendari nagusia; bere kargua indarrean dago eta ITELAZPI erakundea ordezkatzeko duela egiaztatu du.
- MARIA ARANZASU SORRONDEGI ORMAZABAL, PEDRO M. EZEIZA JAUREGUI, MARIA DOLORES TRECUCO ARSUAGA, IÑAKI ALBISU ICHASO eta XABIER GOIKOETXEA ZURIARRAIN, bere izenean eta deposituaren azpiegituraren erabiltzaile gisa.

Laburtuz, alde bakoitzak hartzen dituen konpromisoak hauxek dira:

Tolosako Udalak euri urak jasotzeko proiektua egingo du eta obra exekutatu du. Proiektuaren finantziak Tolomendirekin batera gauzatuko da. Zehazki, proiektu hau gauzatzeko 50.748,42 €-ko inbertsioa egingo da, BEZa barne. Tolosako Udalak inbertsio osoa egingo du, kontuan hartuta proiektuak Tolomendiren dirulaguntza izango duela, hain zuzen, proiektuaren kostuaren % 40: 23.171,50 €. Egin beharreko obrak II. Eranskinean atxikitzen den proiektuan zehazten dira. Inbertsio honetarako partida 0700.623.02.414.00 da. Tolosako Udalak inbertsio guztia 2019ko urtean gauzatuko du.

Tolosako Udala azpiegituraren jabea izango da, obra jaso eta 30 urteko epean. Epe hori igarota, Udalak erabakiko du, erabiltzaileei eta Itelazpiri entzun eta beraien esanbidezko adostasunekin, lagapen epea luzatu eta, beraz, azpiegituraren jabe izaten jarraitu, edo Itelazpiren edo erabiltzaileen aldeko azpiegituraren lagapena egin. Udalak ezarriko ditu ur depositua erabiltzeko arauak, eta Udalak ahalmena izango du erabiltzaileen artean sortu daitezkeen gatazkak ebazteko. Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen hau sinatuko duten hiru aldean arteko koordinazioa egiteko, proiektua gauzatu dadin.



TOLOSAKO
UDALA

ITELAZPIK egokitzapen obrak egingo ditu, antenako azpiegituren sabaian pilatzen den ura bildu eta instalazioaren perimetroraino ur hodi batez bideratzeko. Obra horien kostua Itelazpi berak asumitzeko konpromisoa hartzen du. Obra horiek 2019. urtean gauzatuko ditu. Itelazpi arduratuko da bere eremu hesituaren barruan beharrezkoa den instalazioaren mantenimenduaz. Zehazki, Itelazpi anteraren sabaitik depositura ura bideratzeko hodiaren mantenuaz arduratuko da. Itelazpi Udalarri legatu dio azpiegitura egiteko beharrezkoa den lurra, 30 urtez.

Pedro M. Ezeiza Jauregui Urkizuko Garaikoa baserria – Urkizu auzoa, TOLOSA (GIPUZKOA), nortasun agiria 15896252D, deposituaren erabiltzailea izango da eta 6-33 lursailaren jabea da. Depositua egiteko beharrezkoa den lurra Udalarri legatuko dio 30 urtez.

Azpiegituren erabiltzaileak komunitate erregimenean ustiatuko dute deposituan biltzen den ura. Ondorengo betebeharrak izango dituzte:

- Proiektuan eta planoetan agertzen den banaketa arketatik beraien lursailera eta ura helarazteko beharrezko azpiegiturek egiteaz eta mantentzeaz arduratuko dira.
- Deposituekin erlazioa duten elementu guztien garbiketaz, mantentzeaz eta konponketaz erabiltzaileak arduratuko dira, Itelazpiren eremu itxiaren barruko azpiegiturek salbuetsita.
- Abeltzainek ura abeltzaintzarako soilik erabiltzeko konpromisoa hartuko dute. Hartutako ura zuzenean abelburuak edateko erabiltzen dituzten azpiegituretara bideratuko da. Ezin izango dute ur hori erabili borda edo txabolak hornitzeko, eta udal teknikarien ikuskapenak onartuko dituzte, azpiegitura horren eta uraren erabilera egokia egiten dela ziurtatzeko.

Proiektua eta hitzarmena Tolosako herriarentzat onuragarria izango da, alde batetik, landa eremuko ekonomia eta lehen sektorea indartuko duelako, lurralde oreka mantentzen lagunduz, eta tolosarrek bertako produktuak eskura eduki ditzaten ahalbidetu du.

Bestetik, proiektu honek biodibertsitatea eta ingurumenaren zaintza uztartzen ditu, ustiapenetatik gertu kokatzen diren altuerako larreak sustatuz. Altuerako larreak interes handiko habitat-ak dira, mehatxupean dauden sai zuria bezalako espezie esanguratsuentzat, eta, beste aldetik, abeltzaintza ustiapenak ahalik eta estentsiboak izatea eta larreak gertukoak izatea ingurumenarentzat onuragarria da, uren kutsadura eta energiaren xahuketa ekiditen direlako.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- Onartzea aurreko konpromiso eta betebeharrak jasotzen dituen hitzarmena.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea ITELAZPIri, aipatutako abeltzainei, Idazkaritzari eta Kontuhartzaitzari.



TOLOSAKO
UDALA

2019KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA.

Euskararen Nazioarteko egunerako adierazpena, EUDELeK onartutakoa, Osoko Bilkuran aurkeztuko da, Herritarren Batzorde Informatikotik pasa ondoren.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:55ean.

ALKATEA

IDAZKARIA